

ARMENTIA IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN EZ OHIKO BATZARRA

DEIALDIA

Gure kooperatibaren Estatutu Sozialen 29. artikulua ezartzen duenaren arabera, Ikastolako Kontseilu Errektoreak Armentia Ikastola Kooperatiba Elkartearen Ez Ohiko Batzar Nagusira dei egiten dizu. Batzarra **2024ko irailaren 26an**, 17:30ean lehen deialdian eta **18:00etan** bigarrenean, egingo da gure erakundeak Gasteizko Gaztela Atariaren 101.ean duen egoitzako Areto Nagusian.

GAI ZERRENDA

1. Batzar Nagusiaren agiria sinatzeko bi kideren hautaketa
2. 2024-2025 ikasturterako kuotak onartzea, bidezkoa bada
3. 2023-2024 ikasturteko balantzea, eta 2024-2025 ikasturteko erronkak
4. Euskal Herriko Ikastoletako VII. Batzarraren ondorioak eta balorazioa
5. Ikastolaren inguruko zenbait informazio ematea
 - a. Ikastolan egindako obrak
 - b. Familien eta ikasleen gogobetetzea
6. Galdera-erreguak

OHARRAK: Ohiko Batzar Nagusian zaintza- eta interpretazio-zerbitzua egongo dira.

EIDER OLABE

Lehendakaria

Gasteizen, 2024ko irailaren 12an

